



## **Beste aurrerapauso bat arrantza iraunkorraren alde**

# **EROSKI-K JATORRI IRAUNKORRA BERMATZEN DU ATUN KONTSERBEN GAMA OSOAN**

- **EROSKIak akordio bat egin du bere atun kontserben hornitzaile guztiak ISSF Arrantza Iraunkorraren Nazioarteko Fundazioaren printzipioen arabera hornitua izan dadin**
- **EROSKIak kanpo ikuskaritza programa bat jarri du martxan AZTIrekin eta MRAG Americas-ekin saltokietan kontserbako atunaren iraunkortasuna bermatzeko**

**Elorrio, 2016ko azaroaren 7a.-** [EROSKI](#)ak akordio bat egin du bere atun kontserben hornitzaile guztiak, [ISSF](#) Arrantza Iraunkorraren Nazioarteko Fundazioaren printzipioen arabera hornitua izan dadin. Hala, kooperatibak aurrerapausoa eman du arrantzalekuen kontserbazioan eta bere bezeroek kontsumo iraunkorragoa egiteko modua izan dezaten.

Hauek dira EROSKIak hornitzaileekin hartu dituen konpromisoetako batzuk, itsasoko baliabideen ustiapen arrazionala bermatze aldera: gehiegi ustiatuak dauden espezieei uko egitea —hala nola atun moja (Thunnus Obesus)—, FAO eremuetako arrainik ez erostea —atuna gehiegi ustiatua baitago toki horietan— eta arrantzatutako %10 arrain sarda librekoa izatea (FADik erabili gabe).

*"EROSKIak gure eskaintzan ingurumen bermeak kontuan izatearen alde egiten dugu, ohartzen baikara zein garrantzitsua den natur baliabideen iraunkortasuna. Kooperatiba gisa, eta kate osoan katebegi bat gehiago baikara, kontsumo arduratsuaren alde dihardugu",* esan du EROSKIren Gizarte Erantzukizuneko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak. *"Atun lata guztien etiketatik, azalpenak ematen ditugu arrain espezieaz, arrantzalekuaz eta arrantza moduz. Horretaz gainera, ISSF Fundazioaren webaren lotura jartzen dugu, hor azaltzen baitute xeheago zer den ISSFren iraunkortasun printzipioak betetzea".*

Bestalde, saltokietako atun kontserba guztiaren iraunkortasuna bermatzeko, kooperatibak kanpo ikuskaritza programa bat jarri du martxan [AZTI](#)rekin eta [MRAG Américas](#)-ekin. Horrela, atun kontserbak ere iraunkortasunaren arloan duela zenbait urte abiatutako hobekuntza prozesuan sartu ditu EROSKIak.

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



"Egiaztatu dugu EROSKIren hornitzaileak zorroztasun handiz ari direla betetzen ISFFk kontserbaziorako hartutako erabakiak, bai atunetarako inguraketa-ontziak hornitzeko orduan eta bai eskuz arrantzatzeke orduan —hala nola kainabera edo beita bizia erabiliz eta kazako arrantza eginez—", esan du Jon Lopezek, AZTIren atun taldearen ikertzaileak. "Atun zuriaren kasuan, arrantza pelagikoarekin konparatuta, kainabera edo beita bizia eta kazako arrantza selektiboagotzat eta iraunkorragotzat jotzen dituzte organismo zientifikoek eta ingurumen erakundeek", gaineratu du.

### **Hegaluzea usadiozko metodoekin bakarrik arrantzatua**

Orain dela gutxi, kooperatiba lehen banatzailea bihurtu da, bere gama osoan hegaluzea kainaberarekin banan-banan arrantzatutakoa eskaintzen duena. Hala, EROSKIren markako hegaluze kontserbak, EROSKI Sannia eta EROSKI Seleqtia, dela ontzian dela potoan, eksklusiboki kainabera erabilita arrantzatua izan dira.

### **Ingurumen bermeen defentsa**

EROSKI ingurumen bermeak ematen ari da bere eskaintzan, eta natur baliabideen iraunkortasunarekin arduratsuak diren hornitzaileekin dihardu. 2010. urtean, WWF erakundearekin bat egin zuen Arrantza eredu Iraunkorraren alde, saltokietara iristen den arraina eta itsaskia jarduera iraunkorretatik etor dadin eta ingurumena errespetatzen duten arrantzalekuegatik. Esate baterako, MSC ekoetiketa urdina daramaten produktuen aldeko apustua egin EROSKI, eta aurrendaria izan zen Espainiako Estatuan, banaketaren arloan diharduten enpresen artean lehenbiziko izan baita ziurtagiri hori daukan arrain freskoa eskaintzen arrandegian.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)